



Lehiaren
Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca
de la Competencia

TXOSTENA, KIROL-KLUBEK KIROL-INSTALAZIO PUBLIKOAK ERABILTZEKO GARAIAN LEHENTASUNA IZATEARI BURUZKOA

253-SUST-2017 LEA proiektua

Aurkibidea:

I. AURREKARIAK.....	1
II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK	2
1. Kirola, udal-eskumen.	2
2. Kirol-klubak	3
3. Klub pribatuak eta kirol-instalazio publikoak	3
III. AZTERKETA, LEHIAREN IKUSPEGITIK	4
IV. ONDORIOAK	5

Osoko bilkura:

Alba Urresola Clavero, presidentea
Rafael Iturriaga Nieva jauna, kontseilukidea
Enara Venturini Álvarez, kontseilukidea
Ainara Herce San Martín, idazkaria

1. Lehiaren Euskal Kontseiluak (aurrerantzean, LEK), adierazitako kideez osatuta 2020ko otsailaren 28an eginiko bileran, txosten hau onartu du kirol-klubek kirol-instalazio publikoak erabiltzeko garaian lehentasuna izatearen inguruan.

I. AURREKARIAK

2. Lehiaren Euskal Agintaritzak kexak jaso ditu kirol-instalazio publikoetan kirol-ikastaroak ematen dituzten enpresen aldetik, aipatu instalazioen jabe diren erakundeek kirol-klubei erabilera-lehentasuna ematen dietela-eta, izan kirol-jardueretarako soilik, izan jarduera ekonomikoetarako (oro har, ikaskuntza- edo perfektzionamendu-ikastaro ordainpekoak ematea).

Horrenbestez, lehia-ikuspegiari oinarrituta, txosten hau egin da.



II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1. Kirola, udal-eskumen.

3. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 25.l) artikuluan xedatzen duenaren arabera¹, udalek, beren interesak kudeatzeko eta dagozkien eskumenen arabera, artikuluko horretan xedatzen dena betetzeko lagungarri izan daitezkeen jarduerak sustatu eta zerbitzu publikoak eskaini ditzakete. Udalerrriak, beti, Estatuko eta autonomia-erkidegoetako legedian ezarritako moduan, gai hauetako eskumenak beteko ditu eskumen propio bezala:

l) Kirolaren eta kirol-instalazioen nahiz aisialdirako instalazioen sustapena.

Halaber, aipatu legearen 26. artikulua arabera, 20.000 biztanletik gorako udalerriek nahitaez eskaini behar dute erabilera publikoko kirol-instalazioen zerbitzua.

4. Euskadiko kirolari buruzko ekainaren 11ko 14/1998 Legearen 6. artikulua arabera², udalerriei dagokie, zeini bere lurralde-eremuan, honako hauek gauzatzea:

- a) Lurralde historikoetako foru-organoek onartutako eskola-kiroleko programak burutzea, haiekin koordinatuta jokatzuz.
- b) Udalaren kirol-ekipamenduak eraikitzea, zabaltzea eta hobetzea, eta orobat kudeatzea eta mantentzea ere.
- c) Kirol-ekipamenduen hirigintza-plangintza egiteko tresnak onartzea eta gauzatzea.
- d) Udalaren kirol-ekipamenduen erabilera arautzeko ordenantzak onartzea.
- e) Lurralde historikoetako foru-organoek kirola guztientzat zabaltzeko onartutako programak gauzatzea.
- f) Udalaren kirol-ekipamenduen errolda bat onartzea eta eguneratzea.
- g) Lege honen, gainontzeko legezko xedapenen eta lege hau garatzeko arauen indarrez dagozkien eskumen eta egitekoak baliatzea, bai eta eskuordetzan eman dakizkiekeenak ere.

5. Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.19 artikulua arabera³, Lege honetan eta aplikatu beharreko legerian xedatutakoaren esparruan, udalerriek honako esparru material hauetan erabili ahal izango dituzte eskumen propioak:

- 19) Kirola eta kirol-jarduerak antolatzea eta sustatzea, eta erabilera publikoko kirol-ekipamenduak kudeatzea.

1

https://www.ivap.euskadi.eus/contenidos/informacion/legedia_euskaraz_e_admin_zuz/eu_def/adjuntos/Administrazio-zuzenbidea/Toki-araubidearen_oinarriak_arautzen_dituena.pdf

2 <https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/1998/06/9802891a.pdf>

3 <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2016/04/1601544e.pdf>



2. Kirol-klubak

6. Euskadiko kirolari buruzko ekainaren 11ko 14/1998 Legearen 11. artikulua arabera, kirol-klubak elkarte pribatuak dira, irabazi-asmorik gabekoak eta nortasun juridikoa dutenak. Pertsona fisiko edo juridikoz osatuta egongo dira, eta kirol mota bat edo gehiago sustatzea edo praktikatzea helburu izango dute, lehiaketa ofizialetan parte hartu zein ez.

Bestalde, lege horren beraren 2.3 artikulua arabera, aginte publikoek, zeinek bere eskumen-esparruaren barruan, eskubide hori behar bezala gauzatzea bermatuko dute. Horretarako, baliatuko duten kirol-politikak printzipio hauek izango ditu oinarrian: kirol-elkartegintza antolatu eta sustatzea eta kirolaren arloko antolakuntza-egitura pribatuak aitortzea eta **babestea**.

7. EAEko kirol-klubak aipatu legean eta ekainaren 22ko 163/2010 Dekretuan arautzen dira (163/2010 Dekretua, kirol-klubei eta kirol-elkarteei buruzkoa)⁴.

Dekretu horren 4.3 artikulua arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioek **babestu eta bultzatu** egingo dituzte kirol-klubak eta kirol-elkartek, betiere eurentariko bakoitzaren eskumeneren arloan, baldin eta jarduera ordenamendu juridikoaren arabera egiten badute.

3. Klub pribatuak eta kirol-instalazio publikoak

8. Udal-araudi batzuetan, irabazi-asmorik gabeko kirol-klub edo -entitateei abantailak ematen zaizkie udalaren kirol-instalazioak erabiltzeko garaian.

Esaterako, Gasteizen eta Donostian.

9. Baike, Gasteizko udalak 2019ko abenduaren 20ko osoko bilkuran onartu zituen 2020rako zerga-ordenantzen eta prezio publikoen 8.4 epigrafean (“Udalaren kirol-instalazioak erabiltzeagatik prezio publikoa”) xedatzen denez⁵, kirol-entitateei kirol-instalazioak doan lagako zaizkie eskola-kirola egiteko, eta alokairu-prezio murriztua izango dute denboraldi osoko entrenamenduetarako:

- Ehuneko berrogeita hamarreko murrizketa kirol-anitzeko pistak, gimnasioak eta erabilera anitzeko aretoak denboraldi osorako erreserbatzean, lehiaketa federatuetan edo aisialdi-lehiaketetan parte hartuta kirol-jarduera jarraitua dutela justifikatzen duten kirol-entitateentzat, edo entitatearen sortze-xedeen araberako programak garatzen dituztenentzat.

⁴ https://www.legegunea.euskadi.eus/x59-preview/eu/contenidos/decreto/bopv201003376/eu_def/index.shtml

⁵ <https://www.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/eu/66/25/86625.pdf>



- Ehuneko hirurogeita hamabosteko murrizketa badminton, squash, tenis eta padel pistak eta pilota-lekuak denboraldi osorako erreserbatzean, kirol-entitateentzat, baldin eta jokalarri guztiak badira bazkide.

10. Bestalde, 2019/2020 neguko denboraldian udalaren kirol-instalazioen erabilera-erreserbak esleitzeari buruz Donostia Kirola udal-erakunde autonomoak dituen oinarrietan⁶, Donostiako talde federatuei erabilera-erreserba egiteko lehentasuna ematen zaie, zehazten diren irizpideen arabera esleitzen zaien ordu-bitarterako, baldin eta kirol-instalazio propio egokirik ez badute.

Halaber, Donostiako kirol-klubak erabilera-prezio publikoak ordaintzetik salbuesten ditu, baldin eta taldekide guztiak denboraldi osorako bazkide badira. Gehienez, ordu kopuru hauek daude ordaintzetik salbuetsita (entrenamenduak eta partida ofizialak batuta):

- Urteko lehen 90 orduak, benjamin, alebin eta infantil kategorietako taldeetan.
- Urteko lehen 180 orduak, kadete, jubenil eta senior kategorietako taldeetan.
- Urteko lehen 300 orduak, estatu-mailako bi kategoria gorenetakoko taldeetan edo estatu-mailako lehiaketetan parte hartzen duten banakako kirolariak dituzten taldeetan (gutxienez 10 kirolari). Gutxienez zortzi kirolari dituzten taldeek 120 ordu gehigarri izango dituzte (180 horiez gain), erabilera gutxiko orduetan.

III. AZTERKETA, LEHIAREN IKUSPEGITIK

11. Hizpide dugun auzian aipatzen denez, kirol-instalazioen jabe diren erakunde publikoek irabazi-asmorik gabeko kirol-entitateei lehentasunezko tratua ematen diete, jarduera ekonomikoak (oro har, kiroleko ikaskuntza- edo perfektionamendu-ikastaro ordainpekoak) egiteko instalazio horiek erreserbatu nahi dituzten irabazi-asmoko entitateen kaltetan.

Kirol-klubei erabilera-erreserba egiteko lehentasuna ematen bazaie, entrenamenduetarako, lehiaketetarako edota kirol-ikastaroak egiteko (doan ala ez), edo ordaintzetik salbuesten badira, edo ordaindu beharreko kuotan hobaria ematen bazaie, argi eta garbi mugatzen da instalazio horiek kiroleko ikaskuntza- edo perfektionamendu-ikastaroetarako erabili nahi dituzten operadore ekonomikoen ahalmena.

12. Alabaina, erabilera-erreserba edo -lehentasunaren, edo ordaintzetik salbuestearen edo ordainketan hobaria ematearen justifikazioa kirol-kluben izaera litzateke, alegia,

⁶ https://www.donostia.eus/ataria/documents/397104/10044111/2.1.Erreserben+emakida+Araudia-Reglamento+Concesion+reservas_2019-2020+V1.pdf/6807fdbf-2795-dc8b-0255-9cfe82fdb820



irabazi-asmorik gabeko entitateak izatea, horien xedea kirol modalitate bat edo batzuk sustatzea edo praktikatzea baita.

EAEko administrazioek, legez eta erregelamenduz, kirol-klubak babestu eta laguntzeko betekizuna dute, eta horren isla liteke, kirol-instalazio publikoei dagokienez, erabilera-erreserba egiteko lehentasun hori.

13. Dena dela, ezin dute inoiz diskriminaziorik egin kirol-kluben artean: ez dizkiete betekizun desberdinak ezarriko, eta klub horien kide ez diren pertsona fisiko eta juridikoei ez diete eragotziko kirol-instalazio publikoak erabiltzea, dela kirola egiteko, dela kirolari edo jarduera fisikoari loturiko jarduera ekonomiko bat egiteko.

Hala, erabat ezinezkoa balitz kirol-klub batek baino gehiagok instalazioak erreserbatzea, instalazio publikoaren titularrak lehiaketa bat deitu behar luke, erabilera-erreserba kirol- eta gizarte-eskaintza onena aurkezten duen kirol-klubari esleitzeko.

Aldibereko erreserba hori kirol-klub batek eta irabazi-asmoko entitate batek egiten badute, kirol-klubei legez lehentasuna ematea justifikatuta legoke, baldin eta klubek erabilera-erreserba ez badute erabiltzen jarduera ekonomikoak egiteko, irabazi-asmoko entitateekin lehian (ordainpeko ikastaroak eskainita).

Aldiz, aldibereko erreserba hori jarduera ekonomiko bat egin nahi duen kirol-klub batek eta irabazi-asmoko entitate batek eskatzen badute, bietako batek ere ez du legezko lehentasunik izango; izan ere, antzeko jarduerak egiten dituzten bi entitate lirateke, edozein dela ere lortu duten etekinaren azken helmuga. Kasu horretan, instalazio publikoaren titularrak lehiaketa bat deitu behar luke, erabilera-erreserba gizarte-eskaintza onena (ikastaro kopuru handiena, preziorik merkeenak, etab.) aurkezten duen entitateari esleitzeko.

IV. ONDORIOAK

14. Kirol-klubak elkarre pribatuak dira, irabazi-asmorik gabekoak eta nortasun juridikoa dutenak. Pertsona fisiko edo juridikoz osatuta egongo dira, eta kirol mota bat edo gehiago sustatzea edo praktikatzea izango dute helburu, lehiaketa ofizialetan parte hartu zein ez.

15. Euskadiko kirolari buruzko ekainaren 11ko 14/1998 Legearen eta kirol-klubei eta kirol-elkarteei buruzko ekainaren 22ko 163/2010 Dekretuaren arabera, EAEko administrazioek babesa eta laguntza eskainiko dizkiete kirol-klubei.



- 16.** Kirol-kluben aldeko diskriminazioa administrazio publikoek eman beharreko babes eta laguntzatik eratorzen da, kirol-klubok irabazi-asmorik gabekoak direnez; alegia, kirol modalitate bat edo batzuk sustatzea edo praktikatzea beste helbururik ez dute.
- 17.** Dena dela, diskriminazio positibo horrek mugak ditu: kirol-klub guztiei tratu berdina eman behar zaie, eta klub horien kide ez diren pertsona fisiko eta juridikoei ez zaie eragotziko kirol-instalazio publikoak erabiltzea, dela kirola egiteko, dela kirolari edo jarduera fisikoari loturiko jarduera ekonomiko bat egiteko.
- 18.** Hala, erabat ezinezkoa balitz kirol-klub batek baino gehiagok instalazioak ordu bererako erreserbatzea, instalazio publikoaren titularrak prozedura ez-diskriminatzaile bat ezarri behar luke, baldintza berdinetan lehiatzea bermatuko lukeena, erabilera-erreserba kirol- eta gizarte-eskaintza onena aurkezten duen kirol-klubari esleitzeko.
- Aldibereko erreserba hori kirol-klub batek eta irabazi-asmoko entitate batek egiten badute, kirol-klubei legez lehentasuna ematea justifikatuta legoke, baldin eta klubek erabilera-erreserba ez badute erabiltzen jarduera ekonomikoak egiteko, irabazi-asmoko entitateekin lehian (ordainpeko ikastaroak eskainita).
- Aldiz, aldibereko erreserba hori jarduera ekonomiko bat egin nahi duen kirol-klub batek eta irabazi-asmoko entitate batek eskatzen badute, bietako batek ere ez du legezko lehentasunik izango; izan ere, antzeko jarduerak egiten dituzten bi entitate lirateke, edozein dela ere lortu duten etekinaren azken helmuga. Kasu horretan, instalazio publikoaren titularrak lehiaketa bat deitu behar luke, erabilera-erreserba gizarte-eskaintza onena (ikastaro kopuru handiena, preziorik merkeenak, etab.) aurkezten duen entitateari esleitzeko.